



EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 18koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuran jardungo duten Epaimahaietako kideak izendatzeko zozketa iragartzen da (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez deitu zen).

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 12ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesurako deialdia egin zen.

Aipatutako Aginduaren 5.1 oinarriak ezartzen du hautaketa-organismoek egingo dutela prozesu honetako parte-hartzaileen hautaketa.

Izendapenari buruz, 5.2.2 oinarriak ezartzen du epaimahaikideek oinarri horretan aipatzen diren funtzionarioen artean egingo den zozketaren bidez hautatuko direla. Era berean, adierazten du horren data zozketa egin baino lehen iragarriko dela.

Horregatik guztiarengatik,

EBATZI DUT

Artikulu bakarra.– Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuran jardungo duten Epaimahaietako kideak izendatzeko zozketa (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez deitu zen). Zozketa egingo da:

Eguna: 2023ko urtarrilaren 24an.

Ordua: 10:00etan

Tokia: Lakua 2 eraikineko 3. aretoan (sarbidea Donostia kalea 1-etik da, Gasteizen).

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urtarrilaren 18an.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria
BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO